

IRABAZI-ITURRIAK

Gure irabazi iturri nagusiak bi ekintzetatik lortuko ditugu; Guk eskaintzen dugun zerbitzua kontratatzeagatik bezeroek ordainduko diguten dirua (erabilera prima) eta gure web orrian jarriko dugun publizitatearengandik. Gure zerbitzuaren prezioa prezio finko bat izango da. Gure hasierako gastuak erdiesteko mailegu bat eskatuko dugu.

Gure zerbitzuarengandik lortuko ditugu diru sarrera gehienak, gure zerbitzua kontratatzeko ordainduko digutena hain zuzen ere, eta bezeroek ordainketa bakarraren bidez ingesatuko digute dirua gure bankuko kontu korrontera. Hau da, gure diru sarrera nagusia erabilera prima izango da. Bezeroek entregatzen dituzten produktu kantitateen arabera prezioa aldatuko da, hau da eskariaren arabera. Gure lehen urteko prezioak hauek izango dira: 50 telefono mugikorren mantenu edo konpontzeengandik , 300 euro, 100 telefonoengatik 600 euro, eta hortik aurrera prezioa proportzionalki igoko da eskariaren arabera. 200 produktu hartu ahal izango ditugu gehienez aldi berean, baina, enpresa haziz doan heinean, eta gure langune eta teknikari kopurua igotzen joango garen heinean, zifra hori igo egingo da. Gure zerbitzuen erabilera premiatzeko eta bezeroak mantentzeko, hurrengo auzoak dugu: Enpresa berdin bateri 500 telefonoen mantenu edo konponketa egiten badiegu, hurrengo eskarian %35 eko deskontua edukiko dute.

Gure web orria eta gure marka publizitatuko beharko dugu hasieran ezagutzera emateko, eta gero gure webean publizitatea jarri ahal izateko. Hasieran norbaitek gure webean publizitatu nahi badu zifra txiki bat eskatuko, 100 euro hilabete bakoitzeko, hain zuzen ere. Hasieran enpresa bakar batena jarriko dugu, gure web orria gutxi kargatu eta hortaz erakargarriagoa egiteko, eta 6. hilabetetik aurrera bi enpresena jarriko ditugu batera. Urtean 1600 euroko irabaziak izatea espero dugu horrela.

Hasieran enpresa martxan jarri ahal izateko, ez dakigu nahikoa izango den guk laguntzetatik lortuko dugun dirua (udaletxearekin hitz egin beharko dugu) , bera, bakoitzak 1000€ jarri beharko ditu hasteko. Horretaz aparte, mailegu bat eskatuko diogu bankuari, 2000€ ingurukoa. Gero %3.5 interesak ordaindu beharko ditugu.

Gastuak kontuan hartu gabe eta hasierako kalkulu batzuen arabera gure lehen urteko irabazi garbia osoak 56.200 € izango direla kalkulatu dugu, Hemen kalkulua: 54.600 euro gure zerbitzuarengatik lortuko duguna hilabeteko 600-650 konponketa egiten baditugu, eta 1.600 euro publizitaterengatik lortuko duguna.

EKOZIR